

1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Ikusi-makusi

Betaurrekoak behar dituzu?

- | | |
|-------------------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> Gerturako | <input type="checkbox"/> Eguzkitarako |
| <input type="checkbox"/> Urrutirako | <input type="checkbox"/> Igeritarako |
| <input type="checkbox"/> Denerako | <input type="checkbox"/> Ez ditut behar |



Zertarako erabiltzen dituzu?

- Telebista ikusteko
- Autoa gidatzeko
- Irakurtzeko
- ...

Noizbait izan duzu arazorik betaurrekoekin? Zein arazo?

- Galdu zaizkit
- Deserosoak dira
- Nahiago ditut lentillak
- ...



Erantzun galderi binaka eta partekatu zuen iritzia.

- **Nik denerako behar ditut betaurrekoak. Ohituta nago.**
- **Nik, berriz, orain dela gutxi jarri ditut. Baina gerturako bakarrik behar ditut.**



2- ENTZUN BITARTEAN

2.1. Optikakoa Josurekin eta Junerekin

  Erantzun galderari audioaren lehen bi zatiak entzun bitartean:

Josuk probatu ditu betaurreko berriak?

- Ez, ez zirelako bereak.
- Bai, Arantxaren liburuak irakurtzeko.
- Bai. Eta okerrago ikusten du.





Zer egin du optikan Josuk?

- Bere benetako betaurrekoak jaso ditu.
- Berriz graduatu du bista.
- Amaiari deitzeko esan dio Juneri.

  Konprobatu erantzunak lagunarekin; zati horiek berriz entzun, nahi baduzue.

2.2. June, Amaia eta Josu

  Irakurri taulako esaldiak. Adierazi ideia hauek egia ala gezurra diren audioa entzun bitartean.

	Egia	Gezurra
Josu egun batean bi aldiz joan da optikara		
Amaiak Juneri deitu dio telefonoz		
Bigarren aldian beste betaurreko batzuk probatu ditu Josuk		
Optikoak datu okerrak erabili zituen		
Josuk 15 egun emango ditu betaurrekoen zain		

3- ENTZUN ONDOREN

3.1. Hizkuntzan arreta

NOLA galderari erantzuteko:

ONDO - HOBETO - GERO ETA HOBETO

GAIZKI - OKERRAGO - GERO ETA OKERRAGO



Ondo ikusten dut baina betaurrekoekin HOBETO ikusten dut. Orain OKERRAGO ikusten dut. Lehen baino OKERRAGO. Betaurreko berriekin ohitu naiz. GERO ETA HOBETO ikusten dut. GERO ETA OKERRAGO ikusten dut. Banoa optikara.

3.2. Nork esan du?

✂ Lotu ideia bakoitza bere pertsoniarekin. Baliteke ideia bat pertsonaia bat baino gehiagorekin lotzea.

	Optikoak	Amaiak	Josuk
Betaurrekoekin ez duela ondo ikusten.			
Betaurrekoekin okerrago ikusten duela.			
Normala dela hasieran okerrago ikustea.			

3.3. Lehen eta orain

👤 ✎ 🗣 Elkartu ikaskide batekin eta erabaki bion artean: Zer egiten duzu lehen baino okerrago eta zer lehen baino hobeto?

- LO EGIN
- LAN EGIN
- ABESTU
- JAN
- EUSKARAZ HITZ EGIN
- JANARIA PRESTATU
- GIDATU
- LAGUNEKIN KOMUNIKATU
- BIZI



🗣 👤 Ondoren, aztertu zergatik ote den.

- **Gero eta okerrago egiten dut lo. Oso berandu oheratzen naiz. Horregatik ote da?**
- **Baliteke. Nik, ordea, gero eta hobeto egiten dut. Kirola egin ondoren, ederki egiten dut lo.**